

# AIARALDEA *hemen*



**KULTURA:**  
**Saydi Lubanzadio,**  
**Nathy Pelusoren bideoklip**  
**berrian dantzari 12 or.**

**GEHIGARRI BEREZIA:**  
**Euskaraldiaren amaiera eta**  
**Euskararen Nazioarteko Eguna**  
**ospatuko dituzte Arakaldon**



## “Indarkeria matxistaren aurrean, ofentsiba feminista”

**URDUÑA 2**  
**Parke bat eraikiko dute Urduñako harresiaren inguruan**  
Diseinuak hiru elementu nagusi ditu: eszenatoki bat, pasabide bat eta lorategi bat

**OROZKO 3**  
**Untzeta inguruan parke eoliko bat eraiki nahi du Delta Power enpresak**  
Egitasmoak hamaika errota izango lituzke; horietako zortzi Orozkon egongo lirarteke

**KIROLA 14**  
**Hodei Muñoz aiarrara ziklokroseko junior kategoriako elitean ari da**  
Europako zein munduko txapelketetan neurtu ditu bere indarrak berriki

## EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

**Azaroaren 18tik**  
**abenduaren 2ra**

*Aukeratu zure rola!*

Eman izena, parte hartu Euskaraldian.



# -10€

## AZAROA10

KODEAREKIN

30 €-tako erosketa minimoagatik



# KOT .eus

@kotnatura

"Adi gure sare sozialetara! Merkatua gertu dago eta!"



# herriz herri

## Urduña

Urduñako harresi-eremuan parke bat eraikitzeke proiektua aurkeztu berri dute. Hasierako diseinuan hiru elementu nagusi aurreikusi dituzte: eszenatoki bat, pasabide bat eta lorategi bat. Guztira 617.726,55 euroko aurrekontua aurreikusi dute lan horietarako.

# Parke bat eraikiko dute Urduñako harresiaren inguruan



Andra Mari parrokiaren eta hiriaren harresiaren arteko eremuan sortuko dute parkea. **Urduñako Udala**



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Andra Mari parrokiaren eta hiriaren harresiaren arteko eremuan parke bat eraikitzeke proiektua jendarteratu zuen Urduñako Udalak azaroaren 16an Alondegian egindako aurkezpenean. Udalak helburu hirukoitzaren jarri dio egitasmoari: Urduñako ondare historikoari eta arkitektonikoari balioa ematea eta hori kontserbatzea, hiritarren erabilerrako eta gozamenarako parke bat sortzea udalerrian eta, azkenik, efektu dinamizatzaile bat sortzea: soziokulturala, ekonomikoa eta turistikoa. 617.726,55 euroko aurrekontua aurreikusi dute lan horietarako.

kontrastea eragiten dutenak baina harmonia ere sortzen dutenak", nabarmendu zuen Iratxe Ibañezek.

Agertokiak orotariko jarduerak egiteko espazioa eskainiko du; beste askoren artean, kontzertuak, dantza ikuskizunak, ezkontzak edota desfileak zerrendatu zituzten. Agertokiak hainbat harmaila izango ditu, gabioiez eta zurezko eserlekuez osatuak.

Pasabideak Gorobeleko landarediaz osatutako lorategi bat izango du; eta, honen inguruan, ibilbide didaktiko bat atonduko dute herritarrek inguruko landare espezie desberdinak ezagutu ditzaten. Ikasteko bakarririk ez, espazioak la-

**“Turistak erakartzeaz gain, herritarrei zerbitzu bat ematea da asmoa”**

sai egoteko esparru bat eskainiko die auzokideei. Pasabideak, gainera, inguruko irisgarritasunean lagunduko du ere, parrokiaren eta harresiaren artean dagoen desnibel handia gaindituz.

Harresi-eremuko parkeak hiru sarrera izango ditu aurkeztutako proiektuaren arabera; sarrera nagusia eta beste bi, Andra Maria elizako arkupetik eta Tras Santiagotik.

Parkearen diseinuak ahalik eta erabilera anitzenei erantzun nahi die, honen erabilera ahalik eta gehien sustatzeko asmoz. "Turistak erakartzeaz gain, herritarrei zerbitzu bat ematea da asmoa", azaldu zuen Daniel Luengas arkitektoak.

**Urduñako harresia**

Proiektu berri honekin Urduñako Udaleko Hirigintza Arloak amaitzat joko ditu harresiaren inguruarri balioa emateko burututako jarduketak desberdinak.

Urduñako Udalak 2020tik hainbat lan bideratu egin ditu bertan, ingurua atondu eta erakargarri egiteko, hala nola harresiaren bi dorreetako teilatuak birgaitzea, harresiaren goiko perimetroa errematatzea haren gainean belarrak, sasiak eta bestelako landareak haz ez daitezten, gunea apaintzeko argiztapena eta kanpoko lur-eremua oinezkoentzat bihurtzea eta asfaltzea.

### Elementu arkitektonikoak

Atzoko aurkezpenean proiektuaren diseinuaz arduratu diren Iratxe Ibañez Garcia, Arkaitz Quincoces Biguri eta Daniel Luengas Carreño arkitektoek hartu zuten parte, eta harresi-eremuko parkean aurreikusitako elementuak aletu zituzten. Hasierako diseinuan hiru elementu nagusi aurreikusi dituzte: eszenatoki bat, pasabide bat eta lorategi bat. "Elementu horiek material noblez eginak izango dira, batez ere, korten altzairua, hormigoia eta egurra, eta garaikideak,

**AZAROAK 25  
INDARKERIA MATXISTAREN  
AURKAKO EGUNA**

**17:00 Umeentzako tailerrak.**

**18:00 Antzerkia**  
**Antxo eta Pantxa. Gurekin konektatu!**

**19:00 kontzentrazioa frontoian.**

**Gurekin Konektatu**

Okondoko Udala

**AZAROAK 25 INDARKERIA MATXISTAREN  
AURKAKO EGUNA**

**ARTZINIEGAN INDARKERIA MATXISTARIK EZ!**

**19:00. LOREAK LANDATZEA KORO FEMINISTAREKIN  
KONTZENTRAZIOA LA VILLAKO ITURRIAN**

ARTZINIEGA 2022

ASTURIEN  
INDARKERIA  
MATXISTAREN  
EGUNA

Hiriburu

70  
ANITZAKIA  
2019-2022

Ariznaga

Ariznaga

araba  
álava  
Euzko lurraldeko diputatuak

Laia

## Orozko

# Orozkon beste parke eoliko bat eraikitzeke urratsak egiten hasi da Delta Power enpresa



Jesuriko parke eolika ez da, antza, Orozkon eraiki nahi duten bakarra. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Jesuriko zentral eolikora beste egitasmo berri bat batu da Orozko udalerrian. Hain zuzen, Delta Power enpresak komunikatu dio Udalari beste parke eoliko bateraikitzeke lanean ari dela eta horretarako herriko sei lursail beharko dituela.

Egitasmo horrek hamaika errota izango lituzke; horietako zortzi Orozkon egongo lirake eta gainerakoak Zeberion. Hain zuzen, erroten ilara Untzuetan hasiko litzateke, Zeberio bi-dean.

Delta Power konpainiak energia berriztagarrien esparruan garatzen du bere jardura, baina bere bazkideen artean daude Repsol, Iberdrola, Indra, Endesa, Mobil, Cepsa edota Acciona.

## Udala kontra

Printzipioz, Delta Power enpresak idatziz aipatu dio Udalari euren proiektuak azaldu nahi dituztela, jakiteko euren intereskoa ote den. Hala ere, Orozko Udalak aurreratu dio Delta Power-i bere jarrera kontrakoa izango dela, Jesuriko kasuan bezala.

Edonola ere, gogoratu beharra dago ez dagoela tokiko erakundeen esku horrelako proiektuei

## Enpresa Orozkoko Udalarekin harremanetan jarri da eta jakinarazi dio zortzi errota jartzeko asmoa duela, Untzuetan

ezezkoa ematea, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak bultzatutako Goi-mailako interes publikoko legearen aldaketaren ondorioz.

### Lau zentral Aiaraldean

Zentral eoliko berri horrekin lau izango lirake Aiaraldean eraiki nahi dituzten mota horretako azpiegiturak, bi Orozkon eta beste bi Gorobelen.

Duelahilabeteak zentral hauen aurka mobilizatzeari ekin zion herritar talde batek; Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataforma sortuta. Hainbat mendi-martxa eta ekimen antolatu dituzte gaia sozializatzeko asmoz.

## Aiara

# Aiarako Gaztelekua inauguratu zuten, proiektuaren filosofia ezagutzeko aukera eskainiz

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Egun osoko jardura egin zuten iragan larunbatean, azaroak 19, Aiarako Gaztelekua inauguratzeko asmoz.

Luiaondoko eskola zaharretan dagoen lokalean mokadura antolatu zuten familientzat, eta tarte hori baliatu zuten espazio fisikoa aurkeztu, eta, baita egitasmoaren nondik norakoak eta irizpideak deskribatzeko ere.

Arratsaldean, ordea, Gaztelekua nerabeentzako tokia izan zen bakarrik. Goizean bezala, mokadua eskaini zuten bertaratutakoei eta ekimenaren filosofia azaldu zuten.

### Gazteen esku

Gentza Alamillo alkateak aipatu du lekuak bere lehenengo urratsak egiten hasi dela eta gazteen esku egongo dela Aiarako Udalari eskatzea elementu berriak Gaztelekua erakargarriagoa egiteko.

## SANTA LUZIA AZOKA OROZKO

**BERTOKO PRODUKTUEN AZOKA**  
HEGOALDE  
**ARTISAUTZA AZOKA**  
FRONTOIAN

**HEGOALDEKO KARPETAN DASTAKETAK**

- 12:30 Izaren ogia
- 13:00 Txakoli Gure Ahaleginak
- Terreña haragia dastaketa

Terreña, ogi, eta gaztalehiaketaren eta merkatuko postuen apainketaren sari banaketa.

## Aiara BERDINTASUNAren Alde

**AZAROAK 25**  
INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA

**AZAROAK 25, astelehena**  
KONZENTRAZIOA  
FERIALEAN  
18:00etan

**AZAROAK 29, asteartea**  
18:00. Hitzaldia.  
Afrikako emakumeen literatura.  
Emakumeen Gelan.

# herriz herri

## Amurrio

### Ardatz eta helburu zehatzak Berdintasun Plan berrian



Talde politiko guztien artean aurkeztu dute plana. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako kideek batera, V. Berdintasun Plana aurkeztu zuten iragan azaroaren 8an Amurrioko Udaletxean. "Akor-dio politikotik" sortutako plana izan dela nabarmendu zuen Txerra Molinuevok. "Lehen unetik genuen buruan berdintasuna bezalakoa gai batean denok batuta egon behar genuela eta plana udaleko indar guztien artean adostutakoa izan behar zela", azaldu zuen alkateak. Izen propioa jarri diote bosgarren plan honi: Aingurak. Logo bat ere plazaratu dute, Guk eskulturaren forma iradokitzen duten hiru eskuz osatutakoa.

#### Lau ardatz

Baina plana estetikatik harago doa. Egitasmo zehatzak planteatu dituzte helburu honekin: genero ikuspegia udaleko politika guztietan txertatzea, "erabaki guztien zentro bilakatuz".

Hori lortzeko, lau ardatz jarri

dituzte abian. 'Gobernu onarena' da horietako bat. Ardatz horrek xede nagusi bat izango du: neurri politikoak hartzen dituzten eragile guztiek genero-ikuspegia txertatzea.

Bi marko sortu dituzte horretarako, jada martxan daudenak: Berdintasun mahaia (talde guztien ordezkariak osatua) eta mahai teknikoak. Bi lantalde horien bidez egingo zaio jarraipena planari, "ez dadin plan huts bat izatera mugatu". Horrez gain, generoari buruzko prestakuntza eta gaikuntza ere sustatuko dituzte udaleko sailetan.

Emakumeen eta LGTBQIA+ kolektiboaren ahalduntzea izango da planaren beste ildoetako bat. Hainbat ekimen barnebilduko ditu: emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboa sustatzeko programak, Amurrioko Emakumeen Sarearen indartzea, Laia eskolaren barruan egiten diren dinamika edota guraso elkarte eta ikastetxeetan hezkidetzeta eta sexu-hezkuntza sustatzea, besteak beste. Amurrioko emakumeen eta

LGBTQIA+ kolektiboaren "memoria historikoa" berreskuratzeko ekintzak ere egingo dituzte.

Ekonomia eta gizarte-antolamendua izango da hirugarren ildoaren funtsa. Zaintza lanetan jarriko dute begirada batez ere. Lantalde bat eratuko dute Udalen barruan zaintza bermatzeko eta politika publikoak ere norabide horretan joan daitezkeen. Barne-prestakuntza, irizpideen txertaketa eta programak abian jarritzea ere aurreikusi dute planean.

Laugarren eta azken ardatzak, aldiz, emakumeen eta LGTBQIA+ kolektiboaren aurkako indarkeria jorratuko du, prebentzioa landuz eta "indarkeria matxistatik bizirik irteera" lortu zuten pertsonak "modu integralean" artatuz, "arazoa guztiz gainditzea lortu arte".

Udal protokoloa berrikusi eta hobetuko dute horretarako, sensibilizazio ekintzak antolatuko dituzte, eta prestakuntza saioak eta ekintzak eskaini udalerriko ikastetxeetan. Beldur Barik programa baliatuko dute horretarako, besteak beste.

### Datorren urtean abiatu nahi dute Saratxoko eguzki parkea eraikitzekeo prozesua

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Aurrera doa Saratxon 3.000 metro karratuko eguzki-parkea eraikitzekeo prozesua. Hala adierazi dio Iñigo Ansola Kareagak Aiara Aldea Komunikabideari. Euskal Energia Erakundekeo zuzendaria Amurrioren egon zen iragan azaroaren 10ean, eta bertan egin zituen adierazpenak.

Ansola arabera, Europako Funtsen dirulaguntza deialdi batera aurkeztu zituzten Ekiola egitasmoaren barruan dauden 11 proiektuak, Saratxokoa barne; baina, horietako bostek baino ez zuten finantzaketa lortu. Saratxokoa kanpoan geratu zen, Amurrioko udalerririk deialdian ezarritako gehienezko biztanleria gainditzen duelako.

Hala ere, Euskal Energia Erakundekeo buruak aurreratuz gero aterata berri dela bigarren deialdi bat, eta horretara aurkeztuko dutela berriz egitasmoa. Oraingoan espero dute dirulaguntza jasotzea eta, modu horretan, ekimena 2023an abiatu ahal izatea. Ansola hitzetan, 650.000-750.000 euro arteko laguntza jasotzea aurreikusi dute.

Proiektuak aurrera egingo balu, 1.818 plaka fotobolkaiko jarriko lituzkete guztira, eta bertatik lortutako energia norbanakoen etxebizitzak hornitzeko baliatuko litzateke. Bazkide-

tza kanpaina egingo dute horretarako, etxebizitzak "alokairuan edo jabetzan" dituzten herritarren proiektura batu daitezkeen. "Energia gehiago ekoiztuko balaitez, tokiko komertzioei ere luzatuko litzaieke batzeko aukera". Ansola hitzetan, ez dute aurreikusten energia hori kanpoan enpresei saltzea.

#### 30 ingurumen teknikari

Arestian esan bezala, Amurrioren egon ziren iragan astean Euskal Energiaren Erakundekeo ordezkariak, Iñobe sozietate publikoko kideekin batera. Tokiko erakundekeo bideratutako aurkezpena egin zuten Kultur Etxean, "Erreminta kutxa" aurkezteko. Aiara Aldeko hainbat alkate, zinegotzi eta teknikari bertaratu ziren ekitaldira.

Baliabide sorta plazaratu zuten bileran, helburu berarekin: udalei laguntzea klima-aldaketaren, energiaren eta jasangarritasunaren esparruei lotutako politikak garatzen.

Ekimen berri baten berri ere eman zuten: 30 ingurumen-tenikariren kontratazioa sustatuko dute, urtebetez. Praktika-kontratuak egingo dizkiete, eta euren lana garatzeko materialak eman. Lanbiderekin eta Novia Salcedo fundazioarekin elkarlanean garatu dute egitasmoa, Europako Funtsak baliatuta.

AZAROAK 25  
**Adierazpen instituzionalaren irakurketa ELKARRETARATZEA**

AZAROAK 26  
**Indarkeria matxistaren aurkako I. Padel Club Laudio Txapelketa.**

AZAROAK 30  
**Familiatzako txotxongiloak.**

ABENDUAK 1  
**Tailerra: emakumeen partaidetzarako oztopoak hautsiz.**

ABENDUAK 2  
**Andre zaharren manifestuko antzerkia, musika eta poesia.**

IZEN EMATEA:  
944 03 48 50  
[laialaudio@laudio.eus](mailto:laialaudio@laudio.eus)

Info +



## Aiaraldea

# Aiara Industrial Lab egitasmoan milioi bat euroko inbertsioa egingo du Foru Aldundiak



Enpresa hornitzaile eta laguntzaileak garatzea eta proiektu berriak sortzea da helburua. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Azaroaren 17an aurkeztu zuten Refor enpresaldean Aiara Industrial Lab egitasmoa. Eusko Legebiltzarrak onartutako Aiaralderako Berehalako Jarduera Planaren barruan aurreikusita zegoen ekimen hori. Guztira, foru erakundeak milioi bat euro bideratuko du zentro horretara eta hurrengo zerbitzuak eskainiko ditu: berrikuntza irekiko sistema bat garatzeko zerbitzuak; ekintzaileen, barne ekintzailearen eta *startup*-en garapenerako aholkularitza eta laguntza; enpresa ekimen berriei laguntza estrategikoa, finantzarioa eta komertziala ematea; eta, azkenik, eskualdeko behar espezifikoetara bideratutako prestakuntza.

Zentroa Reforren bertan egongo da kokatuta eta gertuko lankidetzaren harremanak ezarriko ditu tokiko ingurunearen sustapen ekonomikoan diharduten eragile aktiboekin, baliabide publikoekin pribatuen osagarritasuna eta optimizazioa bilatzeko.

Amurrio Bidean, Laudio Hazi eta Aiarako Kuadrillako Ekonomia Sustatzeko Zerbitzua arituko dira Araba Garapen Agentzia foru agentziarekin batera. Aiara Industrial Labek eskualdeko en-

## Arabako Foru Aldundiak sustatu du egitasmoa, Laudioko eta Amurrioko Udalekin eta Aiarako Kuadrillarekin batera

presekin eta beste eragile ekonomiko batzuekin lankidetzan aritzeko eskema prestatuko du, foro iraunkorren eta lantalde espezifikoaren bidez, euren beharrak eta erantzunak identifikatzeko, betiere eskualdearen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.

Pilar Garcia de Salazar diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapeneren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatua, Encina Castresana Aiarako Kuadrillako presidentea, Txerra Molinuevo Amurrioko alkatea eta Ander Añibarro Laudioko alkatea ez ezik, eskualdeko hainbat ordezkari politikok eta enpresako kideek parte hartu zuten aurkezpenean.

**AIARAKO KUADRILLAN**

**INDARKERIA  
MATXISTARIK**

**EZ!**



## Aiara

# WhatsApp bidezko komunikazio kanala sortu du Okondoko Udalak

Testua  
**Allende Solaun Boada**

WhatsApp bidezko hedapen-kanala sortu berri du Okondoko Udalak, tokiko erakundearen informazioa errazago zabaltzeko. Arki-udal aldizkarian adierazi bezala, "ez da administrazio-izapideak egiteko bide bat", auzotarrekiko komunikazioa errazteko tresna baizik.

Udal informazioa jaso nahi

izanez gero, hurrengo zenbakia gorde behar dute okondoko udalaren sakelako agendan, kontaktu berri gisa: 678 17 66 82. Horren ostean, WhatsApp aplikazioan sartu, kontaktu berri hori aukeratu eta 'Alta' mezua bidali behar zaio.

Behin alta emanda, informazio gehiago ez jasotzeko, hots, zerbitzua bertan behar uzteko, nahikoa da 'Baja' hitza duen mezua bidaltzeko.

## Eskerrik asko zure konfiantzagatik

*Eskerrik asko Electro Alavesarekin batera 40 urte betetzeagatik eta zure laguntzarekin etorkizun partekatu eta zirrargarria bultzatzeagatik.*

**4**  **ELECTRO ALAVESA**



Ezagutu gure historia  
[www.electroalavesa.es](http://www.electroalavesa.es)

**Sentitu segurtasuna**



# herriz herri

Laudio

## Maderas de Llodio enpresan enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea ezarri dute martxoaren 31ra arte

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Iragan astelehenetik (azaroak 21), martxoaren 31ra arte, Laudio-ko Garnica enpresan (Maderas de Llodio gisa ezagunagoa dena udalerrian) aldi baterako enplegu-erregulazio espedientea egongo da indarrean. Zuzendaritzak ekoizpenaren jaitziera argudiatu du, eskari faltagatik. Aurreikusi dute aste batez egingo dutela lan astelehenetik igandera arte eta hurrengo astean lantegia itxita egongo dela, printzipioz, urtea amaitu arte,

Fabrikako behargin orori eragingo dio neurriak, salbu gerenteari, eta enpresa batzordeak aurreratu du ez duela espedientea sinatuko. "LABek ez du sinatzen inoiz horrelako dokumenturik", adierazi du langileen or-

### Ostiralean agortu zen negoziatorako epea enpresako zuzendaritzaren eta langile batzordearen artean

dezkarri batek. Horregatik, agiri horretaz aparte, bestelako akordioa negoziatzen ari dira sindikatuak eta zuzendaritza.

Momentuz, hainbat puntutan adostasuna dago bi aldeetan artean, baina talka sortzen du urtebete-ko enplegu bermearen aldarrikapenak. Momentuz, enpresak ez du hori eskaini nahi. "Guretzat hori da garrantzitsua", aipatu du sindikatuen iturri batek. Gaur langileen batzarra egin dute eta, antza, euren artean ados daude exijentzia horrekin.

Horretaz gain, orain arte, enpresak eta sindikatuak akordioa lortu dute hurrengo esparruetan: enpresak soldadak %85era arte osatzea; aurretik erretiroa hartuko dutenei ez diete erretiroa hartzeko data atzeratuko; eta, oporrak zein ordainsariak %100ean ordainduko ditu Garnicak.

## Laudio Glass Hubek 2,6 milioi euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetatik

Testua  
Jones Gartzia Gerra

Azaroaren 2an aurkeztu zuen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2023rako aurrekontu proiektua. 849,8 milioi euro aurreikusi ditu, aurten baino 73 milioi gehiagorekin.

Horietatik 2.183.440 euro izango dira Laudio Glass Hubentzako, "beiraren sektorean deskarbonizazio-ekin-tzak sustatzeko". Iazko uztai-lean aurkeztu zuen Laudio-ko Udalak Laudio Glass Hub proiektua, "Europako beiraren erreferente" bihurtzeko asmoarekin. Gainera, Arabako Foru Aldundiak milioi erdi bat gehiago emango dizkio proiektuari.

Diru horrekin elektrolizagailu bat instalatu nahi dute, erreazio kimikoaren bidez hidrogenoa sortzen duena. Izan ere, Laudio-ko beiraren industria da gas naturala modu estentsiboan kontsumitzen duen sektoreetako bat, eta deskarbonizazioa da, hain zuzen, Aiaraldea eskualderako Berehala Jarduteko Planaren ardatz nagusietako bat.

Aurrekontuen aurkezpen agerraldian, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak jakinarazi zuen Aiarako industriarako "hidrogenoa sortzeko eta kontsumitzeko azpiegitura bat" sortzea aztertzen ari direla, elektrolizagailu bat ezar-tzearekin.

Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak 25 Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24 h  
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



**babestutako edukia**

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.  
Herri bat BERRIAren kulturaren plazan.



Izan BERRIAlagun  
**6 hilabetez 50 euroan**  
eta eraman  
BERRIAren agenda opari

Asteko  
ikuspegia



Eguneko  
ikuspegia

Bietako bat aukeran

**[Berria.eus/berrialaguna](https://berria.eus/berrialaguna)**

\* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

**berria** **zuk badakizulako**

# erreportajea

## “Guk, feministok, erasoen aurrean erantzuten eta antolatzen jarraituko dugu”



Amurrioko eragile feministek eta beste hainbeste elkarterek herriko udaltzain batek egindako eraso salatu zuten San Anton Plazan egindako agerraldian. [Aiaraldea.eu](http://Aiaraldea.eu)

Agerraldi bateratua egin zuten Otsemeak Neska\* Gazte Taldeak eta Amurrioko Emakumeen Sareak duela aste batzuk herriko udaltzain batek sare sozialetan zabalduko mezu matxistak salatzeke. Eraso deitoratu eta azaroaren 25ean egingo duten mobilizaziora batzeko deia egin zuten.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Hautsak harrotu ditu Amurrioko Udaltzain batek iragan urriko azken astean bere sare sozialetan zabaldukoak. Otsemeak Neska\* Gazte Taldeak eman zuen gertatutakoaren berri: udaltzain batek Adrain Camacho tiktoker nafarraren bideo bat elkarbanatu zuen bere Instagram kontu publikoan; Halloween-eko ospakizunen testuinguruan nesken mozorroei egiten zien erreferentzia bideoak. Neska\* Gazte Taldeak erasotzat jo zuen gertaera, eta hura kasu isolatu bat ez zela nabarmendu zuen ere. “Ez da kasu isolatu bat, Amurrion azken hilabeteetan esango ge-

nuke udaltzaingoan jarrerak jarrera feministak izatetik oso urrun kokatzen direla”, azaldu zuten eraso salatzeke plazaratutako oharrean. “Are gehiago, ez da Amurrioko kasuan bakarrik gertatzen den arazo bat. Gorputz polizialek daukaten kirats neomatxista izugarria da azkenaldian”. Talde feministak Udalari neurriak exijituko zizkiola iragarri zuen, eta horrela egin du tokiko gobernuarekin elkartzeko aukera izan duenean. Halaber talde feministako kideek Aiaraldea Komunikabideari azaldu diotenez, Udalak ez du eraso mahai-gainean jarri zuen Otsemeak taldearekin harremanetan jartzeko ahaleginik egin. Kontrara talde feministaren intzistentziak ahalbidetu du bi aldeak batzartzea.

### Udalak hartutako neurriak

Amurrioko Udaleko Berdintasun Mahaia ez ohiko bilera egin zuen Otsemeakek salatutako eraso matxista lantzeko. Udal Gobernu Taldeak berak eraman zuen proposamena mahaira, talde feministarekin bildu ostean, eta alderdi politiko guztiek jo zuten ontzat.

Gauzak Horrela, Amurrioko udaltzainak berdintasunari eta indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko prestakuntza espezifiko egingo du, Berdintasun sailatik lantzen ari den Berdintasun Planaren barruan. Zehazki, bideoa zabaldu zuen agenteak trebakuntza mota bat jasoko du, baina gainerako poliziek ere izango dute beste mota bateko formazioa.

**“Ez da kasu isolatu bat, Amurrion azken hilabeteetan esango genuke udaltzaingoan jarrerak jarrera feministak izatetik oso urrun kokatzen direla”**

Gaiari buruz, Txerra Moli-nuevo alkateak honakoa adierazi du: “Gertaera horiek, udal plantillarekin berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren arloko sentsibilizazioan eta prestakuntzan lan egiteko beharrari buruzko gogoe-ta eginarazten digute, batez ere herritarrekin eta, bereziki, indarkeria matxistaren biktimekin zuzenean aritzen diren langileekin”.

### Langile batzordea

Amurrioko Udaleko langileek ere egoeraren aurrean neurriak hartzeko beharra mahaigaineratu zuten. LAB sindikatuak ahaleginak egin izan ditu ordezkaritza sindikala duten gainerako atalekin “jarrera bateratu eta eraiki-



## erreportajea

tzaile” bat publiko egiteko baina, iturri sindikalek Aiaraldea Komunikabideari adierazi diotenaren arabera ezinezkoa izan da.

Gogoratu beharra dago Amurrioko Udalak berriki ospatu dituela hauteskunde sindikalak. LABek bildu zuen babes gehien eta hiru ordezkari lortu zituen, baina ESAN sindikatuak, Er-tzaintzaren sindikatu korporatiboak, ordezkari bat eskuratu zuen ere.

LABek oharra plazaratu du berriki udaltzainarekin jazotakoa salatzen: Bereziki gertaera larria iruditzen zaigu herritarren segurtasunaz arduratzen diren autoritateek eraso matxistak jasotzen dituzten edukiak zabal-tzea, kontuan izanda, eraso matxista horiek pairatzen dituzten emakumeek gero eurengana joan behar dutela babes eske” nabarmendu dute oharrean. Sindikatu abertzaleak gogorarazi du ere langile publiko orok duela herritarrak begirunez tratatzeko betebeharra edozein delarik jatorria: sexua, hizkuntza, arraza, jatorria, klasea edota dibertsitate funtzionala. Are gehiago, azpimarratu dute ere Amurrioko Udaleko langile guztiek sinatu dutela etika eta jarrerei buruzko kode bat. “Protokolo horiek langileen parte hartzearekin landu behar dira, edukiak zabal-tzeko, kontzientziazio lana egiteko, eta protokolo hori ondo aplikatzeko.

## LAB sindikatuak ahaleginak egin izan ditu ordezkari-tza sindikala duten gainerako atalekin “jarrera bateratu eta eraikitzaile” bat publiko egiteko baina, iturri sindikalen arabera, ezinezkoa izan da hori

Politikariek, udal langileok, eta udaltzainek bereziki, Amurrioko eraso sexistarik gabeko eta inolako bazterkeriarik gabeko herria izatea bermatu behar dugu, eta eredu izan behar dugu” aldarrikatu du LABek.

Udal talde politikoez sinutako adierazpenarekin eta udaltzainei formazioa eskaintzeko neurria ezinbesteko ikusten dituen arren, LABen iritziz neurri horiek ez dira nahikoak eta prestatuntza zehatza, aldian aldikoa eta iraunkorra eskatu du. Azkenik, udaltzaingoak orain arte izandako bilakaeraren eta etorkizunean izan beharko lukeenaren hausnarketa ere beharrezko-tzat jo du sindikatuak.

### Hitzetatik ekintzetara

Neurriak neurri, Udaltzain baten horrela jokatzaren larritasuna salatzen San Anton plazan agerraldi bateratua egin zuten Otsemeak Neska\* Gazte Taldeak eta Amurrioko Emakumeen Sareak iragan azaroaren 20an; herriko beste hainbat eragile sozial, politiko eta kulturalak ere bat egin zuten salaketarekin. Amurrioko Udalak udaltzainei formazioa eskainiko die-la iragarri arren, gisa horretako eraso matxistak salatzen beharra azpimarratu du Amurrioko mugimendu feministak.

Oso larritzat jo zuten, Udala indarkeria matxistaren aurka-

## “Oso larria da, herritarren segurtasunaz arduratzen diren autoritate polizialak mezu matxistak zabal-tzea, are gehiago, edozein eraso matxista jasaten duen emakumeak gero beraiengana jo beharko dutenean”

ko protokolo bat onartzeko bidean dagoen honetan, horrelako mezu matxistak zabal-tzen dituzten udaltzainak izatea protokolo horretako pieza nagusietako bat; Udaleko Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloan Udaltzaingoa parte aktibo bat izango da. Udaltzainek edozein erasoren aurrean esku hartu ahal izango dute. Oso larria da, herritarren segurtasunaz arduratzen diren autoritate polizialak mezu matxistak zabal-tzea, are gehiago, edozein eraso matxista jasaten duen emakumeak gero beraiengana jo beharko dutenean”.

“Paperetik harago” doazen eta neurri konkretu eta integralak dituzten protokoloak exijitu dituzte: “Ez zaigu nahikoa iruditzen formakuntza emango delaren titularrak zabal-tzearekin. Formakuntza eta erantzukizunaren benetako bermeak behar ditugu”.

Izan ere, Udalak irgarratiako formakuntza horiek denboretan zehaztuta ere ez daudela salatu du mugimendu feministak Hori dela eta, mobilizatzen eta antolatzen jarraituko dutela aldarrikatu dute Amurrioko eragile feministek.

Bide beretik, datozen azaroaren 25ean Amurrioko Juan Urrutia plazatik aterako den mobilizazioan parte hartzeko gonbita luzatu diete udalerriko emakume guztiei.



# agenda

2022/11/23  
2022/12/14



## Dena prest Laudion, zortzi urteren ostean, *Gazte Eguna ospatzeko*

Laudioko Gazte Asanbladak eta Suziri Jaiak Koordinakundeak berriki zabaldu dute Gazte Egunaren kartela. Azaroaren 26an ospatuko dute eta larunbat hori ekintzaz jositako dute goizetik gauera arte.

Hasteko, txupinazoa jaurtiko dute 12:00etan eta une horretan hasiko dira umeentzako jarduerak Kirikino taldearen eskutik eta bertso-poteoa Aroa Arrizubietarekin eta Bittor Altuberekin.

14:30ean herri bazkariaren ordua helduko da Laudio Institutuan eta jarraian bingo musikatua

eskaini eta olimpiadak jokatuko dituzte. 19:00ak arte egongo dira ikastetxean eta ordu horretan abiatuko da karpooiteoa herrigunetik, ondoren afaltzeko.

Bazkari eta afarirako tiketak 11 euroren truke eros daitezke Leize eta Sorgin tabernetan, gainera zapi bat emango dute opari. Tiketak azkar batean bukatu ziren hasiera batean eta antolatzaileek otorduetako edukiera handituko zutela iragarri zuten sare sozialetan.

Bukatzeko, 21:00etan Iratzar erromeriak joko ditu eta DJ Azkenak Itxi Dezala taldeko kideek

(hau da, Azkenak jai kuadrillako musika jar-tzaileek) itxiko dute eguna.

2022ko edizioarekin, 2014tik ospatzen ez zen jaiari jarraipena emango diote.

### Isunen aurkako jaialdia

Gazte Egunaren bezperan, azaroaren 25ean, Gaztetxearen kaleratzearen aurkako protestan isunduta ko herritarrek laguntzeko jaialdia egingo dute Orbeiko etxean. Jipis Atómicos, Garena eta Build me a bomb taldeak igoko dira oholtzara 21:00etatik aurrera

INDARKERIA  
MATXISTAREN  
AURKAKO  
JARDUERAK

### 11.24 Osteguna

11:30 LAUDIO  
ARTILEZKO ASALTOA, JOAS  
PALOMARESEKIN  
Herriko Plaza

### 11.24 Osteguna

17:00 ARTZINIEGA  
HAURRENTZAKO TAILERRA  
Indarkeria matxistaren  
aurkako ekintza  
Udaletxe zaharra

### 11.24 Osteguna

18:00 LAUDIO  
HIZKUNTZA ETA  
GENEROAN AHALDUNDUZ  
Mintzodromoa eta ikus-  
entzunezkoen aurkezpena  
Faktoria

### 11.25 Ostirala

17:00 URDUÑA  
'7 DIOSAS'  
Proiektzioa eta zineforuma  
Alondegia

### 11.25 Ostirala

18:00 ARETA  
MURAL MARGOKETA  
Altamira plaza

### 11.25 Ostirala

18:00 AIARA  
ELKARRETARATZEA  
Feriala

### 11.25 Ostirala

18:00 AMURRIO  
MURAL PARTE-  
HARTZAILAIREN  
INAUGURAZIOA  
San Anton plaza

### 11.25 Ostirala

18:30 LAUDIO  
ELKARRETARATZEA ETA  
MANIFESTAZIOA  
Herriko Plaza

### 11.25 Ostirala

19:00 URDUÑA  
ELKARRETARATZEA  
Foru Plaza

### 11.25 Ostirala

19:00 OROZKO  
ELKARRETARATZEA  
Zubiaur Plaza

### 11.25 Ostirala

19:00 ARTZINIEGA  
ELKARRETARATZEA ETA  
LORE LANDATZEA  
Hiribilduko iturria

### 11.26 Larumbata

09:30 AMURRIO  
AMURRIO HIRIBILDUKO  
XXVIII. JUDO TXAPELKETA  
Bañueta kiroldegia

### 11.26 Larumbata

10:30 URDUÑA  
ORIENTAZIO PROBA  
Euskarladiaren barruan  
Foru plaza

### 11.26 Larumbata

19:00 AMURRIO  
MENDI JARDUNALDIAK:  
AYMAR NAVARRO, UNA  
DÉCADA SIN DEJAR DE  
SONAR  
Mendiko Lagunak taldeak  
antolatuta  
Zaraobe Institutua

### 11.27 Iagndea

09:00 LAUDIO  
LAUDIOTIK BILBORA  
MENDITIK  
AEK-k antolatuta  
Tren geltokia

### 11.27 Iagndea

10:00 ARRANKUDIAGA  
MENDI IBILALDIA  
BASAKOETXERA ETA  
TXITXIBURDUNTZIA  
Euskarladiaren barruan  
Herriko plaza

IKUSKIZUNAK

### 11.25 Ostirala

17:00 AMURRIO  
'ZERUPEAN'  
Haurrentzako antzerkia  
Amurrio Antzokia

### 11.26 Larumbata

19:00 LAUDIO  
XIII. FLAMENKO JAIALDIA  
Alfredo Tejada eta Antonio  
Cacereseekin  
Kasinoa

### 11.26 Larumbata

20:00 AMURRIO  
'AITZINDARIAK'  
IXA dantza taldearen  
ikuskitzuna  
Amurrio Antzokia

### 11.26 Larumbata

20:30 LAUDIO  
AERRIMATU  
Arabako bertsoari  
emaldi  
Faktoria

### 11.27 Iagndea

18:00 LAUDIO  
'MARIUSKA'  
Antzezlan  
Faktoria

FAMILIA

## Musika poteoa

### Urduñako tabernetan



Azaroaren 18an hasi zen Urduñako XI. Musika Poteoa, Liborio Kolektiboak antolatuta. Musika eskaintza zabala eskainiko dute hiriko hainbat taberneek. Guztira, 19 kontzertu hartuko ditu Urduñak. Oraindik ere badago ekimenaz gozatzeko aukera azaroaren 25ean eta 26an. Aurten, gainera, hiritarren parte-hartzea eskatu dute hilaren 26an herritarrek, etxeko musika tresnak kalera atera ditzaten.

## Mendi Jardumaldiak,

### bidaiez, abenturez eta naturaz gozatzeko hitzorduetak



Urteroko hitzorduari heldu dio aurten ere Amurrioko Mendiko Lagunak Taldeak, eta Mendi Jardumaldiaren edizio berri bat antolatu du. Iragan azaroaren 18an hasi zituzten konferentziak, eta Itziar Zabala eskalatzailerak eta Tasio Martin alpinista urduñarrak hartu dute parte honezkerok.

#### Bi hitzaldi faltan

Oraindik ere badago mendi abenturez gozatzeko tartea. Azaroaren 25ean Raquel Gar-

ciak Irango Damavand sumendira egindako bidaiaaren dokumentala aurkeztuko du, ohiko ordutegi eta tokian: 19:00etan Zarabe Institutuko aretoan.

Jardumaldiei itxiera emateko Aymar Navarro freeride eskiatzailerek bere ibilbide profesionalaren mugarririk jasotzen dituen dokumentala aurkeztuko du: 'Unda década sin dejar de soñar'. Azaroaren 26an izango da proiektzioa, eta sarrera 2 eurokoa izango da.

## Kartelera



DONIBANE ARETOA  
**Lilo, mi amigo el cocodrilo**  
AZAROAK 27  
IGANDEA (3,5 euro)

16:30



AMURRIO ANTZOKIA  
**Hopper, oi-laskoerbia**  
AZAROAK 27  
IGANDEA (3,75 euro)

17:00



DONIBANE ARETOA  
**La forja de un campeón**  
AZAROAK 27  
IGANDEA (3,5 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA  
**En los márgenes**  
AZAROAK 27, 28  
IGANDEA ETA ASTELEHENA (5 euro)

19:00

**11.25 Ostirala**  
19:00 OKONDO  
ELKARRETARATZEA  
Frontoia

**11.25 Ostirala**  
19:00 AMURRIO  
MANIFESTAZIOA  
Juan Urrutia plaza

**11.25 Ostirala**  
19:00 ARETA  
ELKARRETARATZEA  
Altamira plaza

**11.25 Ostirala**  
20:00 ARETA  
BAKARRIZKETA  
Kultur Etxea

**11.25 Ostirala**  
20:30 AMURRIO  
JAIALDI EZ MISTOA,  
BURBUILAK TALDEAREKIN  
Kultur Etxea

**11.25 Ostirala**  
21:00 ARETA  
AFARIA ETA TERTULIA  
Kultur Etxea

**11.26 Ostirala**  
10:00 LAUDIO  
INDARKERIA MATXISTAREN  
KONTRAKO I. PADEL  
TXAPELKETA  
Gardeako kirolgunea

## MUSIKA

**11.25 Ostirala**  
21:00 LAUDIO  
JIPIS ATOMICOS, GARENA  
ETA BUILD ME A BOMB  
Gaztetxeko kaleratzearen  
jarrirako isunetik kontra  
Orbeiko Etxea

**11.26 Larumbata**  
21:00 LAUDIO  
IRATZAR ERROMERIA ETA  
DJ AZKENAK ITXI DEZALA  
Laudioko Gazte Eguna  
Aldai Plaza

**11.26 Larumbata**  
22:00 LAUDIO  
ZUTIK, HABEMUS PAPAM  
ETA SKC  
Drumgorri

## KIROLA

**11.25 Ostirala**  
19:00 AMURRIO  
MENDI JARDUNALDIAK:  
DAMAVAND 5610  
Mendiko Lagunak taldeak  
antolatuta  
Zaraobe Institutua

## JARDUERAK

**11.26 Larumbata**  
18:00 AIARA  
AFRIKAKO SUKALDARITZA  
ETA MASKARA TAILERRA  
Luisaondoko Gaztelekua

**11.27 Igandea**  
17:00 OKONDO  
ZIENTZIA TAILER  
DIBERTIGARRIA  
Kultur Etxea

## BESTELAKO JARDUERAK

**11.24 Osteguna**  
09:30 AMURRIO  
MARKETIN DIGITAL  
IKASTAROA  
Ikasketa piularen egitasmoaren  
barruan  
Refor enpresaldea

**11.24 Osteguna**  
18:00 URDUÑA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN  
KOMUNITATEA SORTZEKO  
BILERA  
Alondegia

**11.24 Osteguna**  
18:30 ARETA  
RAID ABENTURA, AARON  
GARMENDIAREN HITZALDIA  
Euskalidiaren barruan  
Kultur Etxea

**11.26 Larumbata**  
12:00 LAUDIO  
INSIDE OUT  
Nazioarteko arte ekimena  
Kulturzaleak antolatuta  
Lamuza plaza

**11.26 Larumbata**  
12:00 LAUDIO  
LAUDIOKO GAZTE EGUNA  
Bertso-poteoa, bazkaria eta  
olinpiadak  
Laudio Institutua

**11.28 Astelehena**  
17:00 URDUÑA  
DANTZATERAPIA  
Leticia Moralesen eskutik  
Erretiratuen egoitza

**11.29 Astearte**  
17:30 AMURRIO  
EUSKAL HEZKUNTZA LEGEA:  
HEZKUNTZA PUBLIKOAREN  
ERREALITATEA  
Escola publikoek antolatuta  
Amurrio Antzokia

INFO +  
aiaraldea.eus

# kultura

Dantzari audioarrak ibilbide meteorikoa egiten jarraitzen du eta dagoeneko beste mugarri bat jarri du bere jardueran, Nathy Peluso eta Jon Kortajarenakin lan eginda. Dena den, Lola Indigo proiektuan jarraitzen du.

## Nathy Peluso eta Jon Kortajarenarekin 'Estás buenísimo' bideoklipa grabatu du Saydi Lubanzadiok



Testua **Aitor Aspuru Saez**

26 urte baino ez ditu eta jadanik jende asko amestera ausartzen ez dena bete du Saydi Lubanzadiok. Esaterako, duela bi aste Nathy Peluso abeslariaren *Estás buenísimo* abestia eta bideoa estreinatu zuten eta hor dago audioarra, argentinarraren desio objektua den Jon Kortajarena modelo ezagunarekin batera. Bi izar horiek dira protagonistak bideoan, baina euren distira argiagoa eta indartsuagoa da atzean eta batzutan aurrean mugitzen den dantza taldeari esker. Horien artean dago Saydi Lubanzadio, mugimenduak eta antzezpena uztartzen.

Izan ere, *Estás buenísimo* zorretan dago, argi eta garbi, Michael Jacksonen *Thriller* abestiarekin, baina bestelako eraginak ere sumatzen dira hiru minutuko metraian; *West Side Story*, *Outsiders* edota *Rumble fish* filmak. Ondorioz, koreografiak, giroa, argiztapena eta antzezpenak funtsezkoak dira eta Lubanzadiok primeran egiten du arlo guztietan.

Lan horrekin audioarrak musika eta dantza munduan bere izena txertatzen jarraitzen du, eta, gainera, azaldu beharra dago inork ez diola ezer oparitu bidean, lana eta zorte ona izan baitira bere sekretu bakarrak. Umea zelarrik hasi zen balletan eta geroztik ez du amore eman, ikasten, trebatzen eta entseguak egiten. Batzuek oraindik gogoratuko dute Laudion bere zumba klaseak jaso izana, baina berehala egin zuen hegan eskualdetik. Parisera jo zuen dantza ikastera eta 2018an ospetsu izaten hasi zen Fama ja bailar! reality/lehiaketagatik.

Handik gutxira, Miriam Doblasek, Lola Indigo bezala ezaguna den dantzari eta abeslariak, proposatu zion kanta batean dantzatzea. Muturreko eta azken orduko erronka izan zen. Lubanzadiok ez zuen aukerarik izan taldearekin



Saydi Lubanzadio (eskuman) Nathy Pelusoren alboan dantzatzen. **Nathy Peluso**

saioak egiteko eta grabatutako bideo batekin ikasi behar izan zuen koreografia. Zailtasunak-zailtasun, abesti hori Yo ya no quiero ná izan zen. Egun 95 milioi ikustaldi baino gehiago ditu lan horrek Youtuben eta elkarlan luze baten hasiera izan da.

Hain zuzen, hasierako taldean ez bazegoen ere, Lola Indigok erabaki zuen Lubanzadiori toki bat eskaintzea. Audioarrak ez zuen zalantzarik izan eta abiadura bizian joaten ari zen tren horretara igo zen. Dantzari finkoa bilakatu da proiektuan eta Maria Becerra, La Mala Rodriguez edota Danna Paola artistekin ikus daiteke ere bideoetan.

### Lola Indigon

Bere kabuz zenbait lan egin baditu ere (Nathy Pelusorena berriki, baina aurretik Manu Carrasco-rekin edota Goya Sarien galan), proiektio gehien eman dion jarduera izan da Lola Indigorena.

### Lola Indigo proiektuak eginiko lanak eman dio ospe handiena dantzari audioarrari, baina beste hainbat egitasmotan ere aritu da azken urteetan

Bira izugarriak egin dituzte 2021ean zein aurten. Palau Sant Jordi edota Wizink Center jendez beteta eta Los 40 Music Awards-etan egon dira azken hiru urteetan jarraian, sari bat baino gehiago jasotzeko; azkena duela hiru aste eskas. Miriam Doblasek esku geratzen dira aitortza horiek, baina abes-

lariak beti aipatzen ditu bere taldekideak eta gonbidatzen ditu oholtzara igotzera, elkarlana azpimarratuta. Arrakastaz beteriko bide horretan, Lubanzadiok bere markak hausten joan da (*La niña de la escuela* bideoklipak 221 milioi ikustaldi izan ditu) eta dibertimendua betebeharrekin nahastu du.

**arrate**  
gestoria aholkularitza aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO  
945 89 02 06  
info@arrategestoria.com  
www.arrategestoria.com



20 urte  
baino gehiago  
euskaraz zerbitzua  
ematen

## Iñigo Martinezek esperientzia oso ona izan zuen 'Los renglones torcidos de Dios' pelikulan

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Urriaren 6an estreinatu zen *Los renglones torcidos de Dios* filma. Kritika oso onak jaso dituen ikus-entzunezko ekoizpen hori Torcuato Luca de Tena idazlearen izen bereko eleberrian oinarrituta dago eta antzezle aski ezagunak ditu; Barbara Lennie edota Eduard Fernandez, esaterako.


Aiaraldearentzat, ordea, badaogo beste aurpegi ezaguna aktoreen



Trailerrean bete-betean agertzen da Iñigo Martinez. Warner Bros

arte, Iñigo Martinez audioarra, hain zuzen. Martinezek argi zuen filma hasi zenean bere rola oso zeharkakoa zela. Dena den,

ezuste polita izan zuen, trailerrean bete-betean agertzen delako. "Jende ugari esan zidan ikusi ninduela", azaldu du aktoreak.



**BEÑAT SARRALDE GOITIA**

IKASLEA

### Teknologia, onartua eta normalizatua dagoen droga

Egungo gazteen bizimodua asko aldatu da duela hamarkada pare batzuekin alderatuz. Honetan eragiten duten faktore anitz daude, baina, teknologia da haietako esanguratsuen edota nabarmenena.

Kaletik buelta bat eman eta ia leku guztietatik gazteak aurkitzen dituzu mugikorrari begira. Askotan talka egotearen egon dira nirekin ibiltzen noan bitartean. Askok zehrabideak pantailatik begirada altxatu gabe gurutzatzen dituzte. Bideoak etengabe ikusten, bolumena altu izanda herriko jaietako bozgorailu bat balira bezala. Kaleak begiratzean estimulu handirik ez duenez gizakion begi bistak jasotzen, mugikorraren errefuxiatzen dira. Gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira estimuluz betetako ekintzak eta azkarrak direnak, prozesu honetan teknologiak zerikusi zuzena izanik. Netflixeko pelikula baten zati bat asko ez gustatzean, azkar bilatzen da beste bat. Horregatik, ez gaitzela harritu entzutean gero eta gutxiago liburuak, artikulu luzeak... irakurtzen direla esaten dutenean. Denbora asko damara eta askotan zaila da testu luze bat irakurtzearen prozesua. Bien bitartean, gazteoi alferrak izendatzen gaituzte, edota irakurtzea gustatzen ez zaigula diote, teknologiak eragin handia duela honekin ahazturik. Gainera, aparatu elektronikoen hauek txikitatik erabiltzera hezten gaituzte hezkuntza-sistemaren bidez. D.B.H.-n hauek ia eskola guztietan erabiltzen dira alabeharrez. Eta zer ez esan batxilergoari buruz. Ordenagailuak L.H.-ra heltzen ari dira azken urteotan, ume gero eta txikiengan normalizatzen ari da hauen erabilera. Klaseko lan eta informazio asko Classroom bezalako plataforma digitalen bidez bidali eta jasotzera behartuta gaude gazteak. Hala eta guztiz ere, teknologienganako adizkioaren errua guri, gazteoi, leporatzen digute askotan.

Mugikorrak gure bizitzetan sartu dira eta badirudi gurekin batera luzerako irauongo dutela. Teknlogiek adizkio itzela sortzen dute, eta, txarrena da, gaztaroan gauden gehiengo handi batek erabiltzen ditugula. Salbuespen txikiak egon arren, ez dago ia inor mugikorra erabiltzen ez duenik egun. Teknlogiek gure bizitzak guztiz aldatu dituzte, batek daki nola biziko garen hamarkada batzuk barru.

Halere, pantailan kalitatezko eduki gutxi kontsumitzen da. Ez dago inolako arazorik futbola, memeak, bideojokoak... ikusteko erabiltzea teknologiak. Baina, gutxi erabiltzen dituzte berriak irakurtzeko, ikasteko edozer gauza berria, politika irakurtzeko... Honek, pentsamendu kritiko ezaren prozesuan laguntarazten du. Hau hezkuntzatik datorren beste arazo bat da. Zergatik sinetsi behar dugu irakasleek dioten denari? Zergatik sinetsi behar dugu historiako apunteetan agertzen dena guztiz egia dela? Klaseetan jasotzen duguna barneratzera irakasten digute. Baina ez galdetzerik ea zergatik den horrela eta arrazonomendua garatzera. Halaber, sare sozialetan askotan manipulaturako mezuak agertzen dira eta jende askok sinisten ditu, idatzitakoa zalantzan jarri gabe. Hau, askotan ikus daiteke autoritate argudioak erabiltzen direnean.

## 313 audioarren erretratuak itsatsiko dituzte Lamuza Parkean

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 26an Audioko Kulturzaleak Taldeak ekintza oso berezia gauzatu du 12:00etatik 15:00ak bitartean: *Inside Out* egitaspora batuko da eta 313 herritarren erretratuak itsatsiko dituzte Lamuza plazatik Kultura Etxearen sarreraraino. 140 metroko bidea osatuko dute eta jarduera osoa grabatuko dute, gero sareratzeko.

Kolektiboak xehetasun gehiago eskaini ditu: "Bidearen zabalaren 3 ilaratan jarriko ditugu erretratuak, dron batekin eta hainbat kamerarekin grabatuko den jardura batean. Ondoren, gertatutakoa bideo batean islatuko da, eta nazioarteko ekimenaren web-orrian txertatuko da. 140 metro linealeko 'alfonbra' fotografikoa. Behar bezala lehortu ondo-

ren, audioar guztiek zapaldu eta bizi ahal izango dutena, hondatzen doan arte, eta, azkenik, kendu egingo dena hondatzeak hala gomendatzen duenean".

Ekintzak nazioarteko adar antzatzak ditu. Alde batetik, JR artistak sortu zuen Parisen, baina egun antolakuntza New Yorken dago eta bere irizpideak jarraiki egitarituko dute asmoa: "ekitaldiaren munduko antolakuntzak New Yorketik adierazten duen bezala, 90x135cmko neurriak izan behar dituzte argazkiek".

Edonola ere, ekimena ez da arte hutsa, xede argiak ere baditu. Hain zuzen, erretratuetan agertzen diren audioar guztiek testu bat sinatu dute, eskatze-ko erakunde publikoei politika berritzaileak, ausartak eta konprometitua, Lamuza Parkea Kultura Parkea bilakatze-ko.

IRAILA - ABENDUA  
2022

EMAKUME  
SORTZAILEEN  
ZIKLOA

*Matruska*

ANTZERKIA

**AZAROAK 27 18:00**  
KONPAINIA:  
Ttak teatroa eta kamikaz kolektiboa  
MUSIKARIA:  
Iraia Elias  
Amancay Gaztañaga

*Begiak zerumugan*

POESIA ETA MUSIKA

**ABENDUAK 16 20:00**  
OLERKARIA: Miren Agur Meabe  
MUSIKARIA: Dana Moya

**AIARALDEKO  
EMAKUME\*  
SORTZAILEEN  
IKUSKIZUNA**

DIZIPLINA ARTEKOA

**ABENDUAK 30 20:00**

FAKTORIA

www.faktoria.eus @aiaraldeaekintzenfaktoria  
kultura@aiaraldea.eus · 633 517 383  
Errotari kalea, 4-8 LAUDIO (Araba)

araba álava  
foru adonduko diputación foral

# kirola



**“Europako Ziklo-kros Txapelketan lehen sailkatuen artean denek zuten kontratu profesionala euren taldeekin”**

**HODEI MUÑOZ** (Aiara, 2006) TXIRRINDULARI AIARARRA ZIKLO-KROSEKO JUNIOR KATEGORIAKO ELITEAN ARI DA LEHIATZEN ETA EUROPAKO ZEIN MUNDUKO TXAPELKETETAN NEURTU DITU BERE INDARRAK BERRIKI. PROBA HORIEI ZEIN ERREPIDEKO TXIRRINDULARITZARI BURUZ MINTZATU DA.



Testua eta argazkiak  
**Aitor Aspuru Saez**

## **Zer moduz Europako Txapelketan?**

Ondo, uste dut ondo egin nuela, baina irteeran urduri egon nintzen eta ez nintzen oso ondo atera. Horrez gain, mendi-mazel batean erori nintzen eta esku-muturrean mina hartu nuen. Medikuarenera joan nintzen gero eta esan zidaten ez nuela ezer, baina mina izan nuen lasterketan.

46. sailkatu nintzen Namuren eta uste dut emaitza ona dela. Maila handia zegoen eta nabaritu nuen jende oro oso ona zela.

## **Zer nolako lasterketa mota izan zen?**

Ez zegoen horrenbesteko lupetzirik. Ostegunean joan ginen Belgikara eta ostiralean ikusi genuen zirkuitua. Une horretan lokatzez beteta zegoen, baina lasterketa hasi zenerako guztia lehortu zen eta hori desabantaila da niretzat. Nik nahiago dut lupetzean lehiatzea.

## **Ikusi dituzu kontuan hartzeko txirrindulariak etorkizunera begira?**

Bai, asko. Maila izugarria dago. Lehenengo hamarrek, oro har, kontratu profesionalak dituzte euren taldeetan. Oraindik ez dakit maila horretara heltzeko gai izango naizen. Nik jarraituko dut lanean eta ea zer gertatzen den. Ni saiatuko naiz profesional mailara heltzen, baina ez bada gertatzen, ondo pasatuko dut.

Ikasketak eta lehiaketa uztartzea zaila da, baina lortzen dut ahaleginarekin. Senideek ondo hartzen dute, baina askotan aita edo ama ezin dira lasterketetara joan eta osabarekin joaten naiz.

## **Espainiako Selekzioak hautatu zintuen. Zer moduz esperientzia zure taldekideekin?**

Oso ondo, oso dibertigarria izan da. Atzerrian Euskadiko Selekzioarekin ere izan dut esperientzia, MaasMechelenera joan baikenen aurreko astean, Munduko Txapelketara. Esperientzia oso ona izan zen, nahiz eta emaitzak txarrak izan. Hain zuzen, erorikoa izan nuen eta bizikleta matxuratu nuen.

## **Nolakoa izan zen egonaldia MaasMechelen Munduko Txapelketan?**

Larunbatean joan eta igandean itzuli ginen. Zirkuitua larunbatean bertan ikusi genuen, hegaz-

kinez heldu eta gero. Gero atsedena hartzera joan ginen eta hurrengo egunean lehiatu ginen, arratsaldean bueltatzeko.

Zirkuitua oso ezberdina zen, bide zuzen asko zeuden eta zailagoa zen, aldapa ugariarekin. Ziklo-krosari garrantzia gehiago ematen diote. Elkarbizitza oso ona izan zen.

## **Eta Europako Txapelketan?**

Kasu horretan ostegunean joan ginen, astelehenean itzultzeko. Egia esanda, ez ginen ia hoteletik atera, ez baitzegoen jenderik gu kontrolatzeko. Ondorioz, gehiena entrenatzen ikusi genuen; monumentuak, adibidez.

Tokia oso polita zen eta zirkuitua ere oso ezberdina zen. Beste motatakoa da, baina indartsu egonez gero, ondo egiten duzu.

## **Iaz Euskadiko Txapelduna izan zinen eta gero Espainiako Txapelketako onenen artean egon zinen. Nola kokatzen dituzu Europako eta Munduko Txapelketak zure ibilbidean?**

Ikasketako lasterketak izan dira. Junior kategoriako lehen urtean nago eta hurrengoan ikusiko dugu. Uste nuen zailagoa izango zela kategoria honetara moldatzea, baina uste dut ondo egokitu naizela, momentuz gutxienez.

Denboraldia hasi zenetik hobe-kuntza sumatu dut. Errepideko lehiaketetan aritzean, ziklo-krosko teknika galtzen duzu, eta gero nekez hasten zara. Orain arte lokatzik ez dugu izan, baina izaten hasten garenean uste dut gusturago egongo naizela.

## **Indarrean dagoen denboraldian, zer hartu dute kontuan zu hautatzeko?**

Gehienbat emaitzak. Espainiako Kopan 3. eta 2. postuak lortu nituen Xixonen. Pontevedran hiru asteburutan jarraian lehiatu nintzen. Espainiako onena izan nintzen, baina Italiako eta Frantziako txirrindulariak etorri zirenez, ez nuen hainbeste puntu lortu, maila asko igo zutelako.

## **Hemendik aurrera zein da plana?**

Taranconen lehiatu naiz asteburuan, gero Alcobendasera joango naiz eta azkenik Xativara, Valentzian. Han izango da Espainiako Txapelketa, eta gero Benidormeko Munduko Kopa. Aukera badago Munduko Txapelketara joateko, bikain.

Espainiako Txapelketan ez dut helburu jakina jarri, ondo egin nahi dut eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

**babestutako edukia**



**neguko  
TRUKE  
AZOKA**

**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA  
**FAKTORIAN**

*Kirikano  
taldea*

Jostailuak trukatzeko espazioa  
Txartel bat jostailu baten truke  
Kontsumo ohiturak aldatu  
Familia giro ederra

**ABENDUAK 6, martitzena FAKTORIAN**  
10:30 - 11:00 JOSTAILU JASOKETA  
11:30 - 13:00 JOSTAILU TRUKE AZOKA  
12:00 HAMAIKETAKOA  
12:30 MIRIKI IPUIN KONTALARIA

**AURRETIK JOSTAILUAK ENTREGATZEKO AUKERA DAGO**

**FAKTORIAN: Astelehenetik ostiralera 16:30-20:30**

Informazio gehiago: 722 22 75 32 (Aritz) telefonora deituz // [kokoriko@aiaraldea.eus](mailto:kokoriko@aiaraldea.eus)

# kirola

TXIRRINDULARITZA

## Lagun arteko giroan lehiatu da Orozko Kriteriuma



Orozko Kriteriumaren hirugarren edizioa jokatu zen larunbatean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arrakastatsua izan zen atzo lehiatutako Orozko Kriteriuma, iragarritako parte-hartzaileen artean azken orduko baja batzuk egon zirenen arren (Iñaki Isasi ez zen lasterketan egon eta Joseba Belokik ikusle moduan jarraitu zuen).

Lehenik eta behin, emakumezkoek bete zuten ibilbidea eta Ziortza Isasi izan zen helmugara heltzen lehenengoa. 12:30ean hasi ziren aurkezten gizonezkoen txirrindulariak (profesional ohi ugari tartean) eta gero lasterketa eredu bi-

txian egin zuten. Hainbat bira bete zituzten eta bakoitzean azken kirolaria kanporatuta gertatzen zen.

Azkenean, Omar Fraile eta Aritz Bagues lehiatu ziren eta esprintean lortu zuen garaipena Baguesek, zeinak aurten erretiroa hartuko duen kirol profesionallean.

Bukatzeko, Mikel Nieve txirrindularia omendu zuten, berak ere mundu profesionala utzi baitu aurten. Bere ibilbidea garaipenez beteta dago. Adibidez, Chris Froome zatlan egin zuen Tourra irabazteko. Britainarrak berriki aitortu du bere ekarpena.

ATLETISMOA

## Ehunka lasterkarik egin zioten aurre eguraldi petralari Laudio Krosean



Ellakur in egin zuten lasterketa. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Euskal Herriko eta kanpoko ehunka kirolari parte hartu zuten iragan azaroaren 20an Laudio Kroseko edizio berrian, herriko atletismo taldeak antolatuta. Eguraldia euritsua eta ho-

tza izan zen, eta lupetza ugaria. Adingabeek, gazteek, betanoek eta kirolari paralinpikoez neurtu zituzten indarrak hainbat luzeretako probetan. Tokiko lasterkariak ez ziren falta izan podiumean; Joseba Garcia edota Besaide Astobiza, besteak beste.

ATLETISMOA

## Amurriok IV. krosa hartuko du abenduan

Testua  
**Jone Gartzia Gerra**

Amurrioko Krosak IV. edizioa izango du datorren abenduaren 11n, igandean. Maila guztietako korrikalariak hartu ahalko dute parte, federatua egon zein ez. Refor kirol guneko lanak direla eta, ibilbidea apur bat aldatu du Oin-kariak atletismo taldeak, baina maila eta ikusgarritasuna ziurtatuta daudela adierazi dute.

Gazteek emango diote hasiera kirol jardunaldiari. 10:00etan

16, 18 eta 20 urtez azpiko mutilak abiatuko dira eta 10:30ean, aldiz, neskak. Mailaren arabera distantzia desberdinei egin beharko diete aurre eta, horren arabera, bira kopuru bat edo beste emango diote ibilbideari.

11:00etan lasterketa herrikoia hasiko da, master txapelketarekin batera. Bertako parte hartzaile guztiek egin beharko dituzte 5.000 metro korrika. Lasterketa herrikoian parte hartzeko dortsala hiru euroren truke eskuratu daiteke egunean bertan.

Nolanahi ere, aurrez izena eman behar da atletismo-oinkariak.com webgunean. Antolatzaileen hitzetan, "krosak egiten ez dituztenentzako aukera polita da" hori.

Antolatzaileek azaldu dute aurreko urteetako maila errepikatzen saiatuko direla eta "kros ikusgarria eta entretenigarria" izango dela. Hortaz, amurriok krosa aiaraldearrak abenduaren 11n Reforrera bertaratzera animatu dituzte, ez soilik korrika egitera, baita txapelketa ikustera eta korrikalariak animatzera ere.



## HIZKUNTZAN ETA GENEROAN AHALDUNDUZ

**MINTZODROMOA +**  
HIZKUNTZA ETA GENERO IKUSPEGITIK AHALDUNTZEA FAMILIAN'  
**IKUS-ENTZUNEZKOAREN AURKEZPENA**

**AZAROAK 24,**  
OSTEGUNA  
18:00etan  
**FAKTORIAN**



# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Abenduaren 14an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Yeray

Segi horrela festa guztiak alaitzen... eta gogoratu bizitza batzuetan gogorra da, baina beste batzuetan biguina!

Zure lagun gustokoenak :)



## Sakina

BAINA BUENO LAGUUN! Gaur urte bat zaharragoa zara jeje. Oso ondo pasatzea eta egun zoragarria izatea, maitetxo!

Lagunak



## Uxue

ZORIONAK UXUE!!! nire komadrerik onena zara, maite zaitut, jarraitu horrela!!

Zure lagunik onena



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

## Denborapasak

ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

OSO ZAILA

1	4		3			7		
8								
	6					1		
	1		7				2	
3		4	8		5		9	
							1	
4		6					8	
		5				3	1	
			4		2			

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Amurrioko IV. krosean parte hartzeko dortsal bat zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak**

**Abenduaren 11an jokatu den Amurrioko IV. Krosean parte hartzeko dortsala**

**Parte hartzeko** sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Abenduak 12, 15:00etan.

## IRAKURKETA GUNEA

### NI FEMINISTA NAIZ, ETA ZU?

**Idazleak:** Maria Lezaun Tola eta Amaia Ballesteros Lopez

Patriarkatuaren munstroa gorpuzten duen liburua da. Haurrei zer den ulertzeko aukera emango dien ipuina da aurkezten duguna. Haizearen istorian murgilduta, patriarkatua ulertzeko eta honekin bukatzeko gakoak emango dizkigu ipuinak.



### PIPPI KALTZALUZE

**Idazlea:** Astrid Lindgren  
**Argitaletxea:** Elkar

Neskatila indartsua da Pippi, haimaika istorio bizi dituenak. Mozolomendin bizi da, eta bestelako lagunen artean, zaldiek eta tximinoek laguntzen dute bere abenturetan. Abentura liburua da, emakumeentzako erreferente interesgarria izan daitekeena.



## JOLAS GUNEA

### EGUBERRI EGUTEGIA

#### AZALPENA:

Eguberri egutegia, abenduan zehar egiten den ekintza da. Euskal Herrian abenduaren 3an has gaitzke euskararen egunarekin batera eta 25ean bukatu Gabonekin batera.

Modu honetan bi egun garrantzitsu lotu ahal izango dira jolas baten laguntzarekin.

Nolakoa da egutegia? Egun bakoitzak kutxatxo edo sobre bat izango du. Kutxatxo bakoitzean zerbait egongo da ezkutatua.

Haurrek egun bakoitzean kutxa bat ireki eta barruan dagoena deskubritu dezakete. Sormena apur bat erabilia, kutxa barruetan ez du zertan egon behar zerbait materiala, familian egiteko planak izan daitezke, opari handiago baten parteak (25ean jasoko den opari handiago horrena), animatzeko hitz edo keinu politak... Jolas bat ere izan daiteke. Euskararen egunean hasita, euskara izan dezake eguberriko egutegiak ardatz eta kutxaxoetan, hitz bat agertu eta egunean hitz hori erabili beharra izan daiteke jolasa. Edo hitz bat tabu bilakatu familian... Hamaika jolas eta adibide egon daitezke, sortu zurea eta gozatu etxean!



### IZOZKIA



#### AZALPENA:

1. Esnea edo esne-gaina poltsa batean sartu. Azukrea bota eta nahi den zaporea. Txokoloatea, banilla, limoi zukua, kanela...
2. Poltsa handiago batean izotzak eta gatza bota.
3. Poltsa handian nahasketa duen poltsa txikia sartu. Kontuz, ez nahastea izotza eta gatza gure izozki nahasketarekin.
4. Dena ondo irabiatu 10 minutuz eta izozkia egingo da.

Izozki honetarako ez da behar inolako makinarik ezta izozkailurik ere. Zientziaren laguntzaz, izozkia sortuko da.



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Jolasa bizitza da!

Ziurrenik gaurkoa ez da gai berria izango, ziurrenik askotan idatzi egin dut honen inguruan, hala ere, aurreko astean jaso nuen esaldi baten harira, ziur nago inoiz baino beharrezkoagoa dela berriz ere honen inguruan hitz egitea. Bai, jolasa eta jolasaren garrantziaz hitz egin nahi dut. Aurreko astean, "jolastu besterik ez dute egiten" aipatzen zuen guraso batek eskolaz kanpoko baten inguruan.

Jolasa haur txikien gauza da. Jolasa ez da gauza serioa. Jolasak ez du ezertarako balio. Jolasa denbora galtze bat da. Esaldi hauek dira "jolastu besterik ez dute egiten" esaldiaren atzean.

Haur batek jolastu besterik egiten ez duenean, kontzeptu eta baliabide asko bereganatzen ari da. Jolasak baditu hamaika dimentsio eta askotariko jolasak daude. Jolasten, kontzeptu zailak bereganatzen dituzte, beraien bizitzan egin ditzaketan galdera garrantzitsuei erantzunak topatzen saiatzen dira, barruan ditzuten emozioak lantzen dituzte, kontzentrazio maximoa lortzen dute...

Esan bezala, jolas guztiek ez dute denerako balio, badaude talde izaera lantzeko jolasak, matematikak lantzeko jolasak, hizkuntzak lantzekoak, emozioak kudeatzen laguntzen dituztenak, sormena lantzen dutenak, auto-ezagutza ekartzen dutenak...

Jolasa ez da soilik haurren kontua, jolasa beti dago presente gure bizitzetan. Jolasak ekartzen du ekintzak gorpuztetik pasatzea, jolasek kontzeptu abstraktuak edo imaginarioak gorpuztu egiten dituzte. Horregatik haurrek askotan jolas librean erantzunak topatzen dizkiote egunean zehar gertatutakoari, edo askotan errepikatzen dute ekintza bera.

Jolasik egokiena librea da, askatasunean jolasten dugunean guk nahi dugun horretara, baina beti marko baten baitan jolasten da. Beti dago material bat, espazio bat, denbora bat eta harremantzeko bestelako pertsona batzuk (edo inor ez), horrek sortzen du jolas librearen markoa. Marko hau guk nahi ditugun helburuak lortzeko erabili daiteke, baina prozesua beti jolasten dagoenak egingo du.

"Bai, jolastu besterik ez du egiten", erantzuten diot guraso horri, eta hori da helburua eta nahia, jolasa bizitza baita eta bizitza jolasa. Garrantzia eman diezaiogun jolasari eta ez utzi inoiz jolasteari!




## Arrotza

Basoan naturalki aurkituko ez genituzkeen sei elementu daude irudi honetan. Ikusten al dituzu?

## Hizki-Zopa


Zopa honetan, berriz, basoan naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.

## Seiko Sudokua



Jakingo duzu beharbada, baina hosto eroriek osatzen duten geruza bigun horri ORBELA esaten zaio. Bete lauki zuriak hitz hori osatzen duten hizkien bidez (O, R, B, E, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zubate eta area bakoitzeko.

## Dadua




Bederatzi dado hauetatik bost irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

## SOLUZIOAK



# Kontra

## Aiaraldetik mundura

Fernando Fontes




### Xabier Egia Arriola

JAIOTERRIA  
AMURRIO (2001)

BIZILEKUA  
COIMBRA

BIDAIAREN XEDEA  
ZUZENBIDE GRADUKO IKASKETAK EGITEA



### PORTUGAL



#### DESKRIBAPENA

Portugalgo Errepublikak Europako hegomendebaldeko estatua da. Herrialdea diktadurapean egon zen 1933tik eta 1974ra arte. Urte hartan Krabelinen Iraultza izeneko matxinada baten ondoren, Oliveira Salazar diktadoreak hasitako erregimena erori eta egungo errepublika aldarrikatu zuten.

#### AZALERA

92.212 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

10,3 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Portugesa da hizkuntza ofiziala.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

## “Coimbrako egunerokotasuna filmetan islatzen den bizitza unibertsitarioaren parekoa da”

#### Zer egiten duzu Portugalen?

Irailaren hasieran iritsi nintzen Portugalera eta, egia esan, bihokada batengatik nago hemen, intuizioz. Hasiera batean Italiara joatea pentsatu nuen, herrialdearekiko dudak lotura estua eta Italiarako B2-a ateratu berri nuela aprobetxatuz. Baina, leku berriak, kultura eta hizkuntza berriak ezagutzeko une egokia zela sentitzen nuen. Hemen nago Erasmus egiten, Zuzenbide Graduko 4. maila ikasten, portugesez, gainera.

#### Coimbran ari zara erasmus igarotzen, nolako hiria da?

Coimbra Europako ikasle-hiri berezietariko bat da, Portugalgo Salamanka bezala. Irtsi nintzen lehen unetik konturatu nintzen nolako garrantzia duten ikasleek hemen; 20.000 ikasleko komunitate bat gara hiri txiki batean; beraz, unibertsitateko bizi-

tza eta gazte-giroz beteta dago. Giroa izugarria da eta jendea oso irekia eta abegitsua. Hemen bi festa handi egiten dira: bat ikasturte hasieran; 'Latadak'; eta beste bat ikastaroaren bukaera gisa: 'Queima Das Fitas'. Festa sakratua da haien zatitza, horregatik ulertzen dugu elkar hain ongi. Unibertsitate honetako bizitza filmetakoa da; ikasleak Harry Potter estiloko kapekin doaz eta gaur egun gordetzen segitzen diren tradizio milenario bitxiak betetzen dituzte. Horrez gain, bizitza oso eroso da; hiri polita eta dibertigarria.

#### Nolako da zure egunerokotasuna bertan?

Coimbrako bizimodua eta gainerako Erasmus hiri ohikoen bizimodua oso desberdinak dira. Hemen ikasleok ez gara pisuetan bizi, baizik eta 15 pertsona inguruko etxe handietan antolatzen

gara, eta horrek jende ezberdina ezagutzeko aukera ematen digu. Errepublikak, okupatutako ikasle-elkarte egoitza eta kultura antzeko gune bihurtu dira, eta bertan espiritu iraultzailean eta izaera irekian oinarritutako jarduerak eta tailer ugari egiten dira, Gaztetxe baten antzera. Egunerokotasuna filmetan islatzen den bizitza unibertsitarioaren parekoa da; jaiak etxe erraldoietan egiten dira, fakultateen barruan, eta hemen unibertsitatearekiko atxikimendua ahobatezkoa da. Fakultate bakoitzak bere desfileak egiten ditu, bere sinbolo, karroza eta jendetzarekin, ereseririk zaharrenek oihukatuz. Gau-bizitza handiko hiria izateaz gain, Coimbrak plan eta aisialdi-eskaintza amagabea eskaintzen du. Ni, adibidez, astean zehar egunero ateratzen naiz farran, igandean izan ezik, noski. Kirolari dagokionez,

astean behin futboleko entrenatzen hasi naiz.

#### Zeintzuk dira ikusi dituzun desberdintasun nagusienak?

Gehien harritu nauena ikasleei hemen ematen zaien heroi-aitorpena da. Eminentzia gisa tratatzen dituzte. Nire ustez, Euskal Herrian ez gara hain elitistak norbait ikasteagatik edo ez ikasteagatik epaitzeko orduan, izan ere, haiek askotan prestigioaren arabera jarduten dute. Bestalde, uste dut ikasle-komunitateak kontzientzia sozial eta politikoa handia duela; greba, ekitaldi eta hitzaldiak oso ugariak dira, eta nabari da gauzak aldatu nahi dituen jendea dela. Zentzu horretan, Euskal Herrian dugun kontzientzia gogoraz dit. Horrez gain, izugarri dut faltan poteo-kultura ta euskal gastronomia... Hemen asko edaten da, baina eserita.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

